




LH-1. MAILA
1. UNITATE DIDAKTIKOA
"Gorputza. Berdintasunez hazi"



LH1-1UD.GORPUTZA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Sexua gorabehera, neska-mutilek ezaugarri fisiko natural desberdinak izan ditzaketela ikusaraztea eta esperimentatzea, antzeko trebetasunak eta gaitasunak ikas eta gara ditzaketela, eta guztiak direla errespetagarriak, osasungarriak, baliotsuak eta beharrezkoak norbere bizitzarako, familia bizitzarako eta gizarte-bizitzarako.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p>1.Ez dago gorputz eredu ideal bat, hobe dena eta hala nola, kosta ala kosta, lortu behar den gorputz eredu bat, edertasun eredu bat, ariketa fisiko eredu bat, kirol eredu bat... Ez dago halako eredurik, ez sexu bakoitzerako, ez adin bakoitzerako, ez arraza bakoitzerako... Are gutxiago, eredu bat (maskulino hegemonikoa) guztientzako.</p>	<p>1.Luze eta Txiki,eta beraien buruaren deskribapenetan, ikasleek genero estereotipoen arabera aukeratu dituzte hitzak? Pertsonaiari eta beraien sexuari erreparatuz aukeratu dituzte? Neskek zein mutilek? Batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago? Zergatik? Hitz asko ala gutxi errepikatu dituzte bietan? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Nork bere gorputza, eta kito! Nork bere gorputza ezagutu, onartu, ondo baloratu, maitatu eta garatu.</p> <p>→ Gorputz bakarrak eta errepika ezinak gara. Ez dugu beste batzuen gorputza, gurea baizik. Ez dugu beste batzuen gorputza izan edo lortu behar, gurea zaindu eta garatu baizik.</p> <p>→ Gure gorputzak oso antzekoak dira, atal eta ahalmen gehienak oso antzekoak ditugu. Hala ere, gorputzez eta ahalmenez oso ezberdinak gara esaten da. Zergatik? Zer aldatu da umeen arteko antzekotasunetik helduen arteko ezberdintasunera?</p> <p>→ Gorputzaren ahalmenak eta jarduerak ikasi eta garatu egiten dira. Inor ez da jakinda jai. Eginez eta saiatuz garatzen dira, trebatzen gara. Sexu mugarik gabe, edonork garatu ditzake bere ahalmenak.</p>
<p>2.Gorputz eredu bakarra bultzatzea kaltegarria da. Norberak bere gorputza ez onartzeak eta ez errespetatzeak, norberaren osasunerako kalte handia dakar. Beste pertsonen gorputzak ez onartzeak eta ez errespetatzeak harremanetan bortizkeria handia dakar.</p>	<p>2.Gorputzaren atalak. Ikasleek atal berdintsuak ala atal ezberdinak aukeratu dituzte pertsonientzat? Beraien sexuaren arabera? Zenbat atal ezberdin? Zenbat berdintsu? Zeintzuk? Zein pertsonaietan? Zergatik?</p>	<p>→ Genero aurreiritzirik gabe, edonork ikas eta trebatu daiteke edozein jardueran. Bakoitzak erraztasun edo zailtasun handiagoa eduki dezake, baina ez gure sexuarengatik ezintasun edo iaioitasun berezi bat.</p>
<p>3.Guztion gorputzen ahalmen eta gaitasunak berdintasunez eta askatasunez garatzeko, bermatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzarekiko onarpen eta askatasun berbera. - Mugitzeko aukera eta baldintza berdinak. - Saiatzeko motibazio, ariketa eta itxaropen berberak. -Lorpenen balorazio eta errekonozimendu berberak. 	<p>3.Gorputzaren ahalmenak eta jarduerak. Ikasleek zein ahalmen eta jarduera jaso dituzte ikas daitezkeen taulan? Zeintzuk ez? Neskek zein mutilek berberak jaso dituzte? Zergatik? Eta beraiek jadanik ikasi eta garatu dituzten ahalmen eta jardueren taulan? Mutilek eta neskek berberak jaso dituzte? Zeintzuk bai? Zeintzuk ez? Zergatik?</p>	

→ **Gorputzari buruzko genero aurreiritziak, estereotipoak eta mugak identifikatu, aztertu, ulertu eta berdintasunerantz aldaketak eragin.**